



**SAKRAMENTUAK
, JESUSEN
PRESENTZIA
GURE ARTEAN**

**III. ERANSKINA
ERAGILE, KATEKISTA ETA GURASOENTZAT**

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza

Sakramenturak, Jesusen presentzia gure artean¹

I. SARRERA

Gizon eta emakumeok sentimenduak dauzkagu: maitasuna, samurtasuna, beldurra, ilusioa, poztasuna, tristura, elkartasuna, norberekeria, grina, e.a., eta sarritan zeinu eta adierazpenen bidez azaleratzen ditugu.

Atsekabe sakona edo norbaitenganako maitasun handia sentitu eta adierazi nahi dugunean, hitzak ez dira nahiko izaten. Zeinuak darabiltzagu: musuak, besarkadak... Adiskidetasun edo atsekabe ikusezinak begi-bistako egitendira besarkadan, irribarrean, malkoetan. Ikusezinaikusgai bihurtzen da. Gure gorputza, beraz, berebiziko adierazpidea da.



Jainkoaren eta gizakiaren arteko maitasunezko hartu-emanak ere kanpo-adierazpideak ditu. Jainkoaren maitasuna, Jainkoaren besarkada, Jainkoaren barkamena, Jainkoaren adorea, Jainkoaren agerpena, Jainkoak ematen digun bizia era askotara islatzen da gure bizitzan bainakristau elkartean, bataioaren, barkamenaren, sendotzaren, eukaristiaren, ezkontzaren, apaizordenaren eta gaixoen oliaduraren sakramentuetan bizi eta ospatzen dugu.



Jainkoa gizakiaren bila ateratzen dhonean funtsezko esperientzietan eta sakramentuetan gertatzen da bategite hori: kristau bizitzaren hasieran (bataioa) eta kristau heldutasunera iristean (sendotza); beste batekin batera egiten dugun bizitzarako egitasmoan (ezkontza); kristau elkartean aldeko zerbitzurakontsakratzean (apaiz ordena); biziaren elkarte ospakizunean (eukaristia) eta baita gure hutsegiteetan (adiskidetzea) eta gaixotasunaren aurkako borrokan ere (oliadura).

Kristau sakramentuak maitasunezko istorio baten barnean daude: Jainkoak, guri aurre hartuz, gurekin bat egin nahidu, gu eraldatzeko eta salbatzeko. Jainkoaren eta gizakiaren arteko maitasunezko historiadira. Jainkoa era askotara agertzen zaigu, sakramentu egiten zaigu. "Mundua mundudenetik, berez ikusezinadana, ikusgarri gertatzen zaio haren egintzakaztertzen dituenari" (Erm 1, 20).

Nazareteko Jesusen bizitza osoak, gizon eta emakumeenganako berehurkotasunak, bere hitzak, bere barkamenak, bere eskaintzak, bere heriotza eta berpizkundeak, Jainkoa ikustera eta agertzera ematen digute. Berarengan aditzera ematen da Jainkoaren gizakien aldeko maitasun eta samurtasun guztia. "Askotan eta era askotara hitz egin zien antzina Jainkoak gure arbasoei profeten bidez; azken egun hauetan, berriz, bere Semearen bidez hitz egin digu..." (Heb 1,1-2). "Jainkoa ez du inork inoiz ikusi;... Seme bakarrak eman digu haren berri" (Jn 1, 14-18). Jesusek Jainkoa ageriko egiten du gure artean, gizaki guztiak maitatzeko duen gaitasun agorte-zinagatik eta mundu honetako baztertu guztiakin bat egiteagatik.

♦.....
1

3. mailako Familia Katekesi pastoraleko gidatik hartuta. 3. gaia. Eliza bezala jarraitzen dugu Jesusen atzetik. Etorri eta ikusi! gida pedagogikoa

ERANSKINA ERAGILE, KATEKISTA, GURASOENTZAT

Jesukristorengan, Jainkoak bat egin du gizakiarekin eta geuk ere bat egin dezakegu Berarekin.



Jesusen heriotzak, berak gure arteanduen ageriko presentziarenbukaera dakar bainabere berpizkundeagatik, Espiritu Santuaren bitartez, "Kristoren Gorputza" den Elizan dago. Eliza daorain Kristo berpiztuaren sakramentua gure artean. Eliza honetan entzuten da Jesusen ebanjelioa, senidetasunean bizitzea da helburua eta Jainkoaren Erreina eraikitzeko lan egiten da.

Sakramentuetan adierazten da aparteko eran Jainkoaren presentzia Elizan.

Zeinu hauek Jesusen bizitzako gertaera eta zeinuen lotutadade eta, horrela, jarraitasuna ematen diote beren misioari.

Gure Elizak, beraz, gizonaren eta emakumearen kristau bizitzakofuntsezko zazpi alderdijazotzen dituzten zazpi sakramentu aitortzen ditu. Hauetan, Jainkoak bere burua agertzera eman nahi digu eta bere hurkotasuna eta babesa erakutsi Berarekin batera egiten dihardugunibilbidean:

- Kristau sarbideko sakramentuak: bataioa, sendotza eta eukaristia.
- Sendotze-sakramentuak: adiskidetzea eta gaixoen oliadura.
- Elkartasunaren eta misioaren aldeko sakramentuak: apaiz ordena eta ezkontza.

Bataioa

Bataioan, ura isurtzen denean, Kristorengan, heriotzatik bizi berrira pizten garela adierazten dugu. Jainkoaren seme-alaba egiten gaituen Espiritua hartzen dugu. Jainkoaren seme-alaba garela eta kristau elkartearen kide bihurtzen garela ospatzen dugu.

Jesusek ere Joanengandik hartzen du bataioa Jordanen. Hauxe kontatzen digu ebanjelioak: "Bataiatu eta berehala, Jesusuretatik irten zen. Horretan, zerua zabalduzen, eta Jainkoaren Espirituak zuen Jesusekuso-tankeran jaisten etaberegana etortzen. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: Hau da nire Semea, nire maitea; berau dut atsegin" (Mt 3, 16-17).

Jesusek berak bere ikasleak bidaltzen ditu denak bataiatzera: "Zoazte, bada, eta egin herriguztiak nire ikasle, Aitarenetan Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz etanik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz" (Mt 28, 19-20).

Sendotza

Sakramentu honen bitartez fedean sendotasuna jadesen dugu Jesusen lekuko eta bidaliegiten gaituen Espirituaren bitartez. Kristoren eta Elizaren lankide izateasannahi du horrek.

Sakramentu honen sinbolismoaren jatorria Mendekoste egunean dago; orduan, apostoluek Espiritu Santu hartu zuten; honiesker, gertatutako guztia ulertu zuten, beldurguztiak uxatu eta Jesusek hots egitera ateratu ziren. "Mendekoste eguna iritsi zenean, tokiberean bildurik zeuden guztiak. Bat-batean, haize-boladarena bezalakoburrunba etorrizen zerutik eta beraiek zeuden etxe guztian durundi egin zuten. Orduan, suzko mihiak beza-lako batzuk ikusiz, bakoitzaren gainean bana kokatzen. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion eran" (Eg 2, 1-4).

Eukaristia

Jesusek beremahaira gonbidatzen gaitu, kristau bizitzako janariegiten da. Eukaristiak "eskerrona" adierazten du eta Jesusen bizitza, heriotza eta berpizkundearen oroipena da. Jesus bilduta dagoen elkartearen agertzen da.

Ebanjelioak gogoratzen digunez, Jesusek, azken afarian bere ikasleekin bilduta, ogi eta ardo bezala eskaintzen du bere burua, jarraitzaileentzako janaritzat: "Gero, ogia hartu zuen eta, eskerronezko otoitzaegin ondoren, zatitu eta ikasleei eman zien, esanez: 'Haunire gorputza da, zuentzat ematen dena. Egizue hau nire oroigarri'. Berdin egin zuen koparekin afaletan, esanez: 'Kopa hau itun berria da, zuentzat isurtzen den nire odolaz Jainkoak ezarria'" (Lk 22, 19-20).

Adiskidetzeta

Jesusek Aitarene seme-alaba kutun bezala onartzen eta barkatzengaituela ospatzen dugu sakramentu honetan.

Jesusek berak ere behin baino gehiagotan barkatu zizkien bekatuak sendatzea nahi zutenei: "Seme, barkatuak dituzu bekatuak" (Mt 9, 2). Eta ikasleei ere eman zien bekatuak barkatzeko ahalmen hau: "Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenen bar-katu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenen, ukatu egingo die" (Jn 20, 23).



Gaixoen oliadura

Jesusek bere indarra ematen dio gaixoari bizitzako une zail honetan. Jesusek gaixoekin erakusten duen hurkotasanak Jainkoa gizakiaren ondoan dagoela eta biziemailea dela adierazten du beti. Ebanjelioan ikusten dugunez, Jesusek bere erruki eta sendaketazko ministerioan parte hartzera bultzatzen ditu ikasleak: "Joan ziren, bada, haiek eta berriona hotsegin zuten bihozberizitezen. Deabru askobotatzen zuten eta gaixo asko sendatzen, olio zigurtziz" (Mk 6, 12-13). Santiago apostoluak ere jardutendu sakramentu hau gaixoekin gauzatzeaz: "Zuetako nor bait gaixo dagoela? Dei egin diezaiela eliz ardura-dunei, gaixoaren alde otoitzegin eta Jaunaren izenean olio zigurtziz. Fedez egindako otoitzak osasuna emango dio gaixoari eta jaikiaraziko du Jaunak, eta barkatu egingo dio, bekatu egin badu" (St 5, 14-15).

Apaiz ordena



Jesusek kristaubatzuk bere ministro bezala kotsakratzen ditu Elizaren zerbitzari izateko. Bere bizitza publikoan, Jesusek hamabi lagun izendatu zituen, "berarekin bizitzeko eta berriona hots egitera bidaltzeko, deabruak botatzeko ahalmena emanez" (Mk 3, 14-16), eta horiei apostolu deitu zien. Lukas ebanjelariak, bere aldetik, Jesusek beste hirurogeita hamabi aukeratu zituela eta apostoluen adinako ahalmenekin bidali zituela kontatzen digu: "Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta toki guztietara" (Lk 10, 1-2).

Ezkontza

Gizona eta emakumea maitasunez sortu dituen Jainkoak maitasunera deitzen ditu. Gizona eta emakumea maitasunaden Jainkoaren antzeta irudiko sortuz ituelako: "Jainkoa maitasunada, eta maitasunean dirauena Jainkoarekin bateginik dago eta Jainkoa harekin" (1Jn 4, 16). Gizona eta emakumea, bata bestearentzat sortuak izan zirela dio Idazteunak: "Ez da on gizona bakarrik egotea (...) Bere aita eta ama utziko ditu bere emaztearekin elkartzeko, eta batbera izango dira" (Has 2, 18-24). Jesusek, beraiekin dagoela jabetuta, kristau senar-emazte bezala bizitzeko konpromisoa hartzen duten bi lagun arteko maitasuna santu egiten du.

Dena dela, kontuan hartzekoa da zazpi sakramentuek ez dutela Elizaren sakramentu-aberastasun guztiaeta Jainkoaren presentziaeta honen etagizakiaren elkarrenganako maitasuna agortzen. San Agustinek hirurehun sakramentu edo maitasunezko kanpo-zeinutik gora aipatzenditu: Liburu Santuen irakurketa, hitzaren predikua, oinak garbitzea, txiroak zaintzea, anai-arrebenganako maitasuna,aitagurea errezatzea, pobretasuneanbizea... Apurka-apurka, sakramentu batzuk besteen gainetik nabarmendu ziren. Eta Trentoko Kontzilioan zehaztu zen "Itun Berriko sakramentuak zazpi, eta bakarrik zazpi, direla".

Bibliak nola adierazten du

"Jainko ikusezinaren irudi da Kristo" (Kol 1, 15).

"Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren baitan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak eman digu haren berri". (Jn 1, 18).

"Feliperi esan zion: "Ni ikusten nauenak, Aita ere ikusten du" (Jn 14, 9).

Testuhauetan, lehenengo sinestedunekargi erakusten diguteJesus dela Jainkoazdugun argazkirik onena. Beraikusiz, Aita ikustendugu. Bere bizimoduan,bere hurkotasunean, berebarkatzeko eran,bere hitz etaegintza guztietan, ikasleekJainkoaren benetako irudiaikustendute. Beraz, Jesus da bere jarraitzaileoi Jainkoaren benetako irudia ezagutzera ematen diguna. Jesus Jainkoaren sakramentua da.



Gogoeta honek zertara gonbidatzen du.....

- Jainkoaren maitasunezko presentziaz jabetu gure artean. Bera kreazio osoan dago, bereegintza guztietan, hauek direlako bere presentzia ikusezinaren adierazpen ikusgai.
- Kreazio osoa maitatu, zaindu eta errespetatu, horrela Bera maitatuko eta errespetatuko dugulako eta bere jarduera sortzailean lankide izango garelako.
- Gizaki guztiak sagaratu bezala ikusi eta hartu, Jainkoaren seme-alaba garelako eta bereaurpegi eta aintzarenadierazpen mundu honetan,eta bere presentziarensakramentu besteentzat.
- Jesus gure bizitzaren bihotz, ardatzeta motor egin,Berarengan ematen zaigulako agertzera, erarik onenean,bere Aita Jainkoarenaurpegia eta Jainkoarensakramentu nagusi eta Elizaren sakramentu guztien iturri bihurtzen delako guretzat.
- Jainkoaren hitza arreta eta errespetu handiz entzun, hitz horrek Jainkoaren gure aldeko jarduera askatzailearen berri ona jakitera eta agertzera ematen digulako orain ere.
- Egunez egun begiak irekita bizi, Jainkoa gure bila ateratzen dela, agertzera ematen zaigula eta aparteko eran eskaintzen zaigula erakusten diguten garaien zantzuak antzemateko